

Euskarazko Ikasmaterialgintza eta Eskuliburugintza sustatzeko Deialdia - 2025

1. Deialdiaren helburua eta modalitateak

Deialdi honen helburu nagusia da EHUKo irakasleen euskarazko irakaskuntzarako testuen ekoizpena sustatzea eta testu horien hizkuntza-zuentasuna eta -egokitasuna bermatzea.

Ikasmaterialak eta Eskuliburuak sortuko dira deialdi honen bitartez.

Ikasmaterialak testu-biltegi digital batean argitaratuko dira, 'EHUKo ikasmaterialen sare-argitalpenak' atalean. Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren webgunean kokatuta dago (<https://ikasmaterialak.ehu.eus/>), eta ISSN zenbakia du.

Eskuliburuak Argitalpen Zerbitzuak argitaratuko ditu, ISBN zenbakiarekin, paperean edo formatu digitalean, eta horretarako, Argitalpen Zerbitzuak ezarritako baldintza batzuk bete beharko ditu testuak.

Bai ikasmaterialen kasuan, bai eskuliburuaren kasuan, bi modalitate hauek ditu deialdiak:

- **A modalitatea: Ikasmaterial edo eskuliburu berriak** sortzea eta argitaratzea da modalitate honen helburua. Zortzi hilabete inguruko epea ematen zaie egileei modalitate honetako testuak sortzeko.

- **B modalitatea: Lehendik sortuak diren ikasmaterialak edo eskuliburuak** zuzentzea/gaurkotzea eta argitaratzea da modalitate honen helburua. Kasu honetan, bi hilabete inguruko epea ematen zaie egileei beren lana aurkezteko.

2. Definizioak

- **Ikasmateriala:** Ikasleei ikaste-prozesuan erabilgarria zaien materiala da, teorikoa nahiz praktikoa, irakasgai jakin baterako edo batzuetarako balioko duena. Eskaria egiteko formularioan egileek zehaztu beharko dituzte ikasmateriala erabilgarri izango den irakasgaiaren (edo irakasgaien) datuak.

- **Eskuliburuak:** Ikasleei zuzendutako liburua da, **irakasgai jakin baterako oinarritzko materialtzat jotzen dena**, hau da, irakasgai horretan lantzen den eduki guztia biltzen duena. Eskatzaileek azaldu beharko dute eskuliburu-proposamenak egokiak izango direla oinarritzko material gisa erabiltzeko, eta, eskari-formularioko datuez gain, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

1) Kasuan kasuko irakasgaiak GAUR aplikazioan grabatuta duen gida gaurkotua erantsiko da eskaeran.

2) Gai horren irakaskuntzaren ardura duen **saileko kontseiluaren edo** gai horren irakaskuntza jasotzen duen **ikastegiaren egiaztagiria** izan beharko du; egiaztagirian jaso beharko da lana interesgarria dela ikuspegi akademikotik eta materialaren edukia bat datorrela irakasgaiaren programarekin.

3. Proiektuen onespeneren erabakia

Proiektuak aurkezten direnetik bi hilabeteko epean plazaratuko da deialdiaren ERABAKIA.

EHUko Euskararen Plan Gidarietan esaten da Euskararen arloko Errektoreordetzak ahalegin berezia egingo duela deialdi honi dagozkionetan, bai giza baliabideen aldetik, bai baliabide ekonomikoen aldetik ere.

4. Eskuliburuak argitaratzeko baldintzak

Ikasleei zuzendutako **eskuliburuak** EHUko Argitalpen Zerbitzuaren *Estilo-liburuan* jasotako baldintzetan oinarrituz argitaratuko dira (lotura honetan dago estilo-liburua: <https://www.ehu.eus/eu/web/argitalpen-zerbitzua/argitalpenen-gidaliburua-pdf>):

- EHUko ikasketa-planetak batean helburu duten irakasgaiak bat etorri behar dute GAUR sisteman jasota duten uneko programarekin.
- Saileko Kontseiluak edo irakasgaia irakasten den ikastegiak egindako ziurtagiria izan behar dute (II. edo III. eranskina). Han, lanak interes didaktikoa duela eta edukia irakasgaien programara egokitzen dela adieraziko da.

Argitalpen Zerbitzuan, prozesuaren amaieran, behin testu osoak jaso eta gero, haien ebaluazioa egingo da, eskuliburu-formatuan argitaratu ala ez erabakitzeko. Proiektua atzera botako balitz, Hizkuntza Zerbitzuek aztertuko lukete ikasmaterial gisa argitaratu ala ez.

5. Lanen hizkuntza-egokitasuna

Bai Ikasmaterialetan eta bai Eskuliburuetan, egileek testuaren gutxieneko hizkuntza-kalitatea bermatu beharko dute. Komeni da, besteak beste, Xuxen zuzentzaile automatikoa (<http://www.xuxen.eus/>) instalatzea eta erabiltzea. Halaber, kontuan izatekoak dira EHUko EHULKU zerbitzuaren hizkuntza-aholku didaktikoak (<https://www.ehu.eus/es/web/euskara/ehulku-aurkibidea>), bai eta honako iturrietan ezarritako irizpideak ere (batez ere ortotipografian, puntuazioan, morfosintaxian, zientzia eta teknikarako gomendioetan eta kalko okerrean): *Euskara Batuaren Eskuliburua* (<https://www.euskaltzaindia.eus/>

[index.php?option=com_ebe&task=sarrera&Itemid=1161](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&task=sarrera&Itemid=1161)), Euskara Batuaren Ortotipografia (I-IV) osatzen duten arauak (https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_euskaltzaindiarenarauak&view=frontpage&gaia=&Itemid=1723&lang=eu) eta EIMA Euskal Ikasmaterialen estilo-liburuak (<https://www.euskadi.eus/eima-estilo-liburua/web01-a3eima/eu/>).

Lan osoaren kalitateak eskarian bidaltzen den laginaren pareko izan behar du hizkuntza-zuzentasunaren eta -egokitasunaren aldetik.

Testu guztien azken hizkuntza-zuzenketaz eta -egokitzapenaz EHUko Hizkuntza Zerbitzuak arduratuko dira. Hizkuntza Zerbitzuek onespén-agiria emango diote ikasmaterialari edo eskuliburuari, hura argitaratzeari dagokionez hizkuntzaren aldetik egokia eta zuzena dela adieraziko duena.

6. Testu erredaktatuak bidaltzeko modua eta epea

Ikasmaterial eta eskuliburu guztiak, behin erredaktatuak direnean, helbide elektronikoko honetara bidali behar dira: argitaletxea.deialdiak@ehu.eus

A modalitateko lanetan (sortu behar diren lan berrietan), parte-hartzaileek, justifikatutako arrazoirik ezean, beranduenez **2026ko urriaren 1erako** bidalia izan beharko dute material osoa. Epea amaitu baino lehenago ere, nahi dutenean bidal dezakete lana.

B modalitateko lanak (lehendik eginak diren lanak), berriz, justifikatutako arrazoirik ezean, **2026ko apirilaren 17rako** aurkeztu beharko dira.

Editatzeko moduko formatuetan aurkeztuko dira lanak, ahal dela Microsoft Office-ko edo OpenOffice-ko programak erabiliz.

7. Egilearen konpromisoa

Eskaria onartua izanez gero, egileak konpromiso hauek hartuko ditu bere gain:

- a) Testua deialdian adierazitako epean bidaliko du, posta elektronikoko helbide honetara: argitaletxea.deialdiak@ehu.eus
- b) Euskara batuaren eta EHUko Hizkuntza Zerbitzuen hizkuntza-irizpideak beteko ditu, eta zuzentzaileak markatutako zuzenketak testuan txertatuko ditu.
- c) Eskatutako baldintzak bete ondoren, testua honela argitaratuko du: ikasmaterialen kasuan, *EHUko ikasmaterialen sare-argitalpenak* testu-biltegian (<https://ikasmaterialak.ehu.eus/>), eta eskuliburuaren kasuan, Argitalpen Zerbitzuarekin adostutako beste argitalpen modalidadeetako batean (paperean, formatu digitalean...).

- d) Eskuliburua argitaratzeko, haren interes didaktikoa eta kalitatea aztertuko dira. Ikastegiaren edo Sailaren onespén-txostenak kontuan hartuko dira, baina Argitalpen Zerbitzuak eska lezake ebaluazio itsua ere, Argitalpen Zerbitzuak hautatutako kanpoko ebaluatzaile batzuei txostena eginaraziz.
- e) Testugileak, orobat, idazki bat igorri beharko du, non ziurtatuko baitu material sortu berriaren jabe intelektuala dela.

8. Egitasmoen bidalketa

NOLA BIDALI: Deialdi honi atxikitako inprimakiak erabili behar dira, eta EHuko Erregistro elektronikoro orokorrean aurkeztu behar dira (<https://egoitza.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/index>)

ZER BIDALI: Eskera-formularioan eskatzen diren datuez gain, deialdi honekin batera argitaratzen den **I. eranskina** (lanaren lagina barne, 4.200 karaktere ingurukoa) **kasu guztietan**, eta II. edo III. eranskina eskuliburu-formatukoetan.

NOIZKO BIDALI: **2025eko azaroaren 21tik abenduaren 18ra bitartean.**

Lanaren lagina:

- A modalitatean, lanaren laburpen bat (aurkibideak ez dira onartuko lagin gisa), eta
- B modalitatean, lanaren lagin bat eta aurkibidea.

Lanaren edo proiektuaren hizkuntza-kalitatea balioesteko erabiliko da laginaren testu hori.

Eskuliburua argitaratuko den ala ez erabakitzeke, izenburua, aurkibidea eta dagokion irakasgaiaren programarekin duen lotura aztertuko da; bai eta lanaren interes didaktikoa eta kalitatea ere.

Leioan, 2025eko azaroaren 14an

Pablo Albizu Garitano
EHUko Hizkuntza Zerbitzuen
zuzendaria

Elisabete Alberdi Celaya
EHUko Argitalpen Zerbitzuaren
zuzendaria